

## **NAUTIKA ETA ITSAS GARRAIOA UNIBERTSITATE MASTERRA**

### **SARRERA-PROFILA**

Gomendatutako sarbide profila Nautika eta Itsas Garraioko Graduko ikasle tituludunarena da.

### **TITULAZIOAK**

- Nautika eta Itsas Garraioko Gradua
- Ingeniaritza Nautiko eta Itsas Garraioko Lizentziatura
- Aipatutakoen pareko titulazioak

### **AURREKO PRESTAKUNTZA**

Era berean, Masterrera zuzeneko sarbidea izango dute aurrekoen baliokideak diren titulazioek; zehazki, jarraian adierazten direnak:

- Itsasketa Zibilean lizentziadunak: Nautika atala. 1977ko ikasketa planari dagokion titulua, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren agindu hauek araututakoa: 1977ko urriaren 19ko Agindua (254. BOE, 1977ko urriaren 24koa); eta 1982ko azaroaren 10eko Agindua (276. BOE, 1982ko azaroaren 17koa).
- Espainiako Itsas Merkataritzako Kapitaina. Lanbide titulu horretan sartzeko, adierazitako lizentziaturetako baten bat behar da edo -plan horien aurreko kasuetan- honako hauetan araututako ikasketa plana egin behar da: 144/1961 Legea, abenduaren 23koa, itsasketa eta arrantzako irakaskuntza berrantolatzeari buruzkoa; eta 2841/1980 Errege Dekretua, abenduaren 4koa, Itsasketa Zibileko goi mailako irakaskuntzei buruzkoa (4. BOE, 1981eko urtarrilaren 5koa).
- Itsas Merkataritzako 2. Mailako Pilotua. Lanbide titulu honetan sartzeko, baldintza hauek bete behar dira: Itsasketa Zibileko diplomatura (Nautika atala) izatea, abenduaren 4ko 2841/1980 Errege Dekretuaren bidez araututakoa (1981eko urtarrilaren 5eko BOE); 1999ko ikasketa planei dagokien Itsas Nabigazioko diplomatura izatea, 1999ko martxoaren 15eko Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Ebazpenaren bidez araututakoa (1999ko apirilaren 9ko BOE); edo -plan horien aurretik- honako hauetan araututako ikasketa plana egin behar da: 144/1961 Legea, abenduaren 23koa, itsasketa eta arrantzako irakaskuntza berrantolatzeari buruzkoa; eta 2841/1980 Errege Dekretua, abenduaren 4koa, Itsasketa Zibileko goi mailako irakaskuntzei buruzkoa (4. BOE, 1981eko urtarrilaren 5koa).

### **MERITUEN BALORAZIOA**

Espedientea: Sarbide titulazioan lortutako espediente akademikoa baloratuko da. Hautapen irizpidean, jarraian adierazten diren koefizienteak erabiliko dira:

- Nautika eta Itsas Garraioko Gradua (% 100)
- Ingeniaritza Nautiko eta Itsas Garraioko Lizentziatura (% 90)
- Batzordearen irizpidearen pean baliokideak diren titulazioak (% 80)

### **PROBA ESPEZIFIKOA**

Ez da sarrerako proba berezirik egingo.